

## EUSKAL IÑAUTERIA GURE SINISMEN ZAHARRETATIK IKUSITA

**J**ai bat baldin bada sustraitua mundua hauxe da: Iñauteria, munduko bazter buztietan zabaldurik baitago. Bere zainik sakonenak aintzinako denboretan gordetzen ditu, eta garai zahar haien oihartzuna dakarkigu urtero, sentimendu antzestral eta totemikoez jantzirik. Horixe baita azken finean iñauteria, gure arbaso zaharren sinismenetara urteroko itzulera. Gure Euskal Herri zahar honetan iñauteriak indar eta kolore handia hartzen du, eta garai bateko magiaren sua piztuta iraunarazten digu. Iñauteria jai solstiziala da, neguko solstizioaren jaia, eta solstiziaren inguruko errito bezala ulertu beharra daukagu.



*LANTZEKO IÑAUTERIA IÑAUTI honen barruan badira pertsonaia baikorrak eta ezkorrak. Baina guztien gainetik Miel Otxin, jai solstizialaren pertsonaia nagusia.*

## 1.- Euskal sinismen zaharren zenbait ezaugarri

- 1.- Oso kontuan hartu behar dugu, gure sinismen zaharretan osotasuna, dena, batasun bakar batez ikusten zutela: Ortzi. Monoteista zen nire uste apalez, baina osotasun horren barruan bazeuden bestelako izakiak eta indarrak.
- 2.- Euskal sinismen zaharra manikeista zen, aurkakoen etengabeko borrokan sinistu baitzuten. Den guztia da bere aurkako zuzena duelako, eta ideia honen sinbolorik adierazgarriena svastika dugu (gure artean lauburu deitzen duguna), bere bi mugimenduen aurkakotasunean indar baikor eta ezkorrak aurkitu egiten baitira. Euskaldunok beti izan gara arras manikeoak, eta ez bakarrik gure jainko-jainkosen aurkako dualidadeetan (Eki/Ilazki, Mari/Maddu, Atarrabi/Mikelats,...), bizitzaren, izatearen agian hobeto, alderdi orotan baizik ere. (Euskara/erdara, Euskaldun/erdaldun, Euskal Herria/erdal herriak,...) Edo gutarrak edo bestelakoak azken finean.
- 3.- Euskal panteismoa ere oso kontuan hartzekoa da, dena Ortziren zati zela sinisten baitzen. Gure arbaso zaharren ustez, den dena jainkoturik zegoen, dibinitatearen zati baita.
- 4.- Eternala. Beraien ustez dena betidanik eta betirako baitago, hori bai etengabeko mugimenduan eta transformazioan. Hasierarik eta amaierarik gabeko kurpil ibiltariaz sinisten zuten, aho barruan isatsa sartzen zuen sugaeren mitoaz.
- 5.- Animismoa beste ezaugarri haundia zen, izadiaren izaki ezberdinetan pertsonifikatzen baitzituzten ulertzen ez zituzten era guztietako fenomenoak edo gertakizunak. (Sugar=tximista, Ostots=trumoia, Ilargia=heriotza, Eki=bizitza, Gaueko=ezezaguna, Laino=gaitza,...)
- 6.- Animismoarekin oso loturik datorkigu beste ezaugarria: naturismoa. Bai gure asaba zaharrak animistak ziren naturan bilatzen baitzituzten euren eredu eta jarrerak. Animalien presentzia zabala oso loturik dago naturismo honekin, (Zaldiko edo Zamaltzain, Zezen Suzko, Zezengorri, Hartza, Sugar, Mari bele bihurturik,...)
- 7.- Mundu magikoaren presentzia. Ez gara bakarrik gizakiok, animaliak eta landareak mundu honetan, ez, badira ere bestelako izaki magikoak gizakiaren gainetik daudenak, halanola lamiak, Basajaun, Galtzagorriak, Sorginak,...

## 2.- NEGUKO SOLSTIZIOA ETA UDABERRIAREN ETORRERA

Gogoratu beharra daukagu zernolako garrantzia eduki dute kultura eta herri guztien errito eta sinismenetan solstizioek eta ekinozioek, hauen inguruan gauzatu baitituzte ez bakarrik beren tradizioak, eta baita askotan egutegia ere, baizik eta urte osoan izateko eta bizitzeko beharrezko filosofia edo jokaera ere.



*ITUREN ETA ZUBIETAKO JOALDUNAK.*

*Bizkarrean daramazkiten joare handien bitartez lurra esnanu nahi dute, udaberria sor dadin. Eta eskuan daramaten erratsa astinduz indar gaiztoak uxatu nahi dituzte.*

Udako solstizioa oso loturik dago biziarekin, berotasunarekin, eguzkiarekin, eta Neguko solstizioa bere aurkako izanik, heriotzarekin, hotzarekin eta ilargiarekin. Manikeismo hutsa. Neguko solstizioa nahitanahiez pasa beharreko denboraldi luze-iluna da, Ekiren erresumara iristeko iragan beharreko ilargiren menpeko egoera. Negua joaten da pasatzen eta piskanaka piskanaka eguzkiaren indarra gero eta handiago egiten da. Udaberriaren etorrera da, udaberriko ekinozioaren etorrera.

Ilargi ahultzen joaten da eta Eki berriz indartzen. Ekik gero eta indar handiago du eta honek Amalurraren esnatzea dakar, biziaren berrindartzea, etengabeko kurpil ibiltariaren alde baikorra. Eta hauxe da iñauterian urtero errepikatzen zaiguna. Hau dela eta euskal iñauteria leku askotan urtarrilean hasten da eta martxoan-apirilean bukatu egiten da. Erritual luzea da neguko solstizioa eta udaberriko ekinozioa lotzen dituen. Neguarekin etortzen diren indar eta izpiritu gaiztoak edo ezkorrak izutu behar dira, udaberrarekin etorriko diren indar baikorrei segida zabala eman ahal izateko. Eta hauxe da herri guztietako iñauterietan, modu batez edo besteaz, egiten dena. Oroitu dezagun adibide moduan, Ituren eta Zubietako joaldunek euren joare haundiez edota eskuan daramaten zaldilezko errats horiek astintzen lortu nahi dutena: Lurra esnatu eta izpiritu zaharrak euren herrietatik uxatu.

### 3.- EUSKAL IÑAUTERIAREN INGURUKO ZENBAIT GORA-BEHERA

IÑAUTERI edo IHAUTERI hitzari buruz gauza asko esan diren arren, badirudi Julio Caro Barojak emandako interpretazioa zuzenena dela. Aipatutako antropologaoren ustez, hitz horren barruan hiru osagai edo elementu omen daude: IHO/IÑO/IÑAU substantiboa, -TE atzizkia eta azkenez beste bigarren atzizki bat -ERI. Aipaturiko lehen substantiboak karnabal esanahia du. Lehen atzizkia erabiltzen da denboraldia edo garaia adierazteko, esate baterako: euriTE, urTE, haizeTE, asTE, elurTE,... Eta biga-

rren atzikiari dagokionez esan dezagun oso erabilia dela gaitza, bizioa, edota kalitate txarra adierazteko, adibidez birikeria, nafarrerria, lirdingeria,...

Bigarren atzikia ipini gabe erabili egiten da ere, bai Nafarroan eta bai Iparraldean gauza bera adierazteko, karnabala adierazteko alegia. IÑOTE edo IYOTE adibidez. Lehenengoz aipatu dugun sustantibotik (IHO/IYO/IÑO/IÑAU alegia) ateratako hitz eratorriek trufa, iraina eta kirtenkeriekin loturik daude, eta honek esan nahi du Caro Barojaren iritziz, Iñauteria sustraitua dagoela erokeriak edo eguneroko bizimodutik urrun dauden jarrerak aurrera eramatea baimentzen edo toleratzen duen denboraldi mugatu batean. Adibide gisa honako hitz eratorriak dakarzkigu gogora: IÑAKIN (irain), IÑOZO (memelo, lerdo), IÑULA = IÑUALA (kirtena, astopito, tontolapiko).

Azter eta aldera ditzagun orain lehenengo atalean ikusitako euskal sinismen zaharren ezaugarriekin euskal inauterian azaltzen diren zenbait pertsonaia eta osagai:

1.- Iñauteri guztietan azaltzen dira pertsonaia ugariak, baina askotan, ez beti, azaltzen da pertsonaia bat inauteri osoaren ardatza izaten dena (Miel Otxin Lantzen, Markitos Zalduendon, Trapujale Lezon,...) Hauxe oso lotua dago euskaldunon monoteismo bereziarekin, aniztasunean finkatutako monoteismoan edo osotasunean alegia.

2.- Manikeismoaren etengabeko presentzia. Alde ona eta alde txarra. Izpiritu onak eta izpiritu gaiztoak. Batekoak edo bestekoak. Adierazgarriena Zube-roako maskarada dugu bi aurkako aldetan banaturik: gorriak eta beltzak. Ikus dezagun honetan Juan Karlos Etxe-goien "Xamar" idazleak berea den "Orhipean" izeneko liburu xarmangarrian esaten diguna:

"Maskaradan bi pertsonaia mota daude: gorriak eta beltzak. Gorriak jende zintzoa, ona da; bere gain daude dantzaririk ikusgarrienak. Gorrien artean Txerrero, Gathuzain, Kantiniarsa, Zamalzain, Entseñaria (guzti hauek aintzindariak dira, dantzari nagusiak), Jauna, Anderia, Laboraria, Laborarisa, Marixalak, eta Kükülleroak aurkitzen ditugu. Beltzak gorrien aurkakoak dira: gaiztoak, ahalkegabeak,



**LUZAIDAKO BOLANTAK**

Dantzak oso garrantzi erritual handia hartzen du euskal inauteriaren barruan. urrats bakoitzak, jauzi bakoitzak esanahi zehatza baitauka.

zikinak, ebasleak, gezurtiak, andrekarriak, ardozaleak... xiberotar baten hitzetan: BELTZERIA TZAR HORI URDAINKERIA BAT DÜZÜ. BASA DÜZÜ! Beltzen multzoan Kherestuak -nausi eta mithil-, Xorrotxak -nausi eta mithil- Buhameak, Kauterak, -Kabana kauter nagusia, Pupu eta Pitxu- Bedezia eta bedezi lagünak daude. Gorrien eginkizuna dantzak diren bezala, beltzena joküak egitea da”.

Eta hauxe errepikatu egiten da inauteri guztietan, bi aldeetako pertsonaiak azaltzen baitira. Zenbait tokitan pertsonaia ezkorrek indar handia hartzen dutelarik: Momotxorroak Altsasun, Mamuxarroak Unanuan, Txantxoak Lantzen, Zirikoak Lezon,...

- 3.- Eternitatearen kontzeptua beti azaltzen da euskal inauterian. Hasi egiten da gero bukatzeko. Baina hasiera eta amaiera kurpil batean lotzen dira, etengabeko kurpilaren ibiltaria gogorra ekarri nahian. Bukatzean beti pertsonaietako bat hil egiten da, Miel Otxin afusilatu egiten da, Trapujaleri lepoa mozten zaioa igitai batez, hirietako inauterietan (Tolosa, Donostia, Irun,...) Sardinari su ematen zaio. Baina heriotz honek berekin darama hurrengo urteko itzulera, su garbitzailak ez du deusezten, berritzen baizik. Zuberoako Maskaradetan gauza bera geratzen da, Pitxu hiltzen baitute, denak bere gainera erorita, baina azkenean Bedeziak (sendagileak) berpiztu egiten du. Naturaren urteroko berpiztea sinbolizatzen du, neguko solstizioan lotan geratzen dena eta udaberriko ekinozioan berriro pizten zaiguna.
- 4.- Anismismoa ere garbi isladatzen da, animalia eta izaki magikoen itxura hartzen duten pertsonaietan. Aipa ditzagun inauteri askotan azaltzen den HARTZA esan-guratsua (Ez ahaztu zuberotarren ustez hartza dela gizaki guztion arbasorik zaharrena), ZALDIKO nafarra edota ZAMALZAIN zuberotarra, Bizkaia aldeko LAMIAK, AZERIAK, BASURDEAK, ASTOAK,... eta abar. Arrunt garrantzitsua da pertsonaia hauen inguruan gauzatzen diren erritualak: perratzea, zikiratzea, odolez zikintzea, barrenak ateratzea,... eta abar. Hauetako zenbait errituetan sexuaren inguruko erritu inizatikoak ikus daitezkeelarik, Zamalzainen zikiraketa esäte'bäterako.

Badirudi bestalde inauteria oso loturik dagoela lizunkeriekin eta haragi (txerrikia askotan) jatearekin. Askoren ustez inauteririk arkaikoena oso lotua egongo zen elementu orgiastikoekin.

## 4.- KRISTAU ERLIJOAREN ERAGINA

Esan dugu inauteria solstiziala dela, paganoa, arkaikoa, jentila Euskal Herrian, eta gure inauteriarri dagokionez aipatu ditugu garai bateko sinismen zaharrek lotzen dituen ezaugarriak edo bereizgarriak. Bai halakoxea da inauteria, halakoxea da euskal inauteria eta begi bistan geratzen da denon agerian. Baina paganismoa itzali zen aspaldi, euskal jentilak gorde ziren Kixmiren erlijioaren etorrerarekin, eta hala eta guztiz ere inauteriak gaurko egunetaraino iraun du. Nola daiteke izan?

Kristau erlijioak bestelako morala, bestelako ikuspegia ekarri zuen, baina Garizuma bat aurrera eramateko behar zuen atsedean eta askatasunezko denboraldi labur bat aurretik, egoera hestutasunez ito ez zedin. Hau dela eta toleratu egin zuen inauteria, karnabala, Garizumaren aurreko beharrezko denboraldi bezala. Hortik datorkio Arrasaten eta beste zenbait tokitan inauteriari ematen zaion izena: Aratustea (haragi uztea alegia). Garizuman baraua eta astinentzia aldarrikatzen zuten, eta inauteria litzateke haragia uzteko denboraldiaren aurrekoa.



ZUBEROAKO MASAKARADA. Maskaradan parte hartzen duten pertsonaia guztiek alde bat edo bestea (beltza ala gorria) hartu beharra daukate. hauxe da euskal manikeismoaren adibiderik onena.



*Lezoko Iñauteriak. -Hauxe da Trapujale, lezoar iñauteriaren pertsonaia nagusia. Lepoa igitaiaz moztean etengabeko kurpil ibiltariaren ideia azaltzen zaigu, urtero errepikatzen zaigun ziklo bera.*

gabeko kurpilaren oroimena, aurkakoen borroka sortzailearen albistea,... baina baita kristau erlijioaren mezua eta janzkera ugari. Eta azken honek iraunarazi du azken mendeetan zehar, eta bizirik ekarri digu gaurko egunetara.

## 5.- AMAIERA GISA

Buka dezadan lan hau iñauteriaren inguruko beste zenbait gauza oroituz. Iñauteria paganoa da, baina baita kristaua ere. Iñauterietan jendeari bere arazoak ahaztu egiten zaizkio, eta horixe da iñauteriak neurri haundi batean bilatzen duena. Urte osoan zehar gaizki ikusia dagoena, edota erriprimitu egiten duguna, data horietan kaleratzen dugu. Eta horretan izugarri lagundu egiten du mozorratzeko ohiturak, modu batean (nekazal iñauteriko jantziak) edo bestean (hiri iñauteriko era guztietako mozorroak eta disfrazak). Disfrazak, dantzak, kantuek, jateak eta edateak osatzen dute iñauteriaren izaera. Eta denon gaintik badago elementu bat: askatasuna, Julio Caro Barojak esaten zuen bezala, askatasun eza eta iñauteria nekez uztartzen baitira.

ZABARREKO